

RUEDA DE PRESA

Charla *LAS VOCES DE LAS VICTIMAS, UNA ENSEÑANZA PARA TODOS*

Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea sortu zenez geroztik, oso tinko aritu zen indarkeriak sortutako biktimenganako guztion onespen eta elkartasuna errealitate izan zedin. Horretarako, eurekin egon eta eurei entzun egin genuen, hala nola gizarte-sentsibilizazioa piztu nahi izan genuen. Geure eta gizartearen beraren elkartasuna helarazi ez ezik, indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa ere bazela iruditu zitzaigun.

Azken urteotan, Biktimenganako Elkartasunezko Jardunaldiak antolatzen ibili gara Gestotik. Berauek bilgune sosegatua izatea nahi dugu, bertan biktimek euren iritzi eta sentimenduak agertu ahal ditzaketelarik. Gainontzekook haien errealitatera hurbil gaitzeko, nozitzen duten egoera ezagutzeko eta onartzeko eta era berean, gu eurengandik gertu gaudela adierazteko. Baita gaur egun eta izangoan sortu ahal zaizkien beharrezanez hausnartzeko ere. Jardunaldi hauetako parte dira, datorren asteartean, urriak 25, Miramar Jauregian antolatutako mahai-ingurua, honako titulupean: *"Biktimen ahotsak: denontzako ikasgai"*

Bi helburu zehatz ditugu topaketa honekin:

Alde batetik, biktima batzuen lekukotasuna, alegia izandako bizipena, hiritarrei helarazi, hurbildu. Beraz, gu guztiok bertatik bertara ezagutu ahal izango dugu eurek jasandako injustizia, eta hartara bai eurenganako bai indarkeria terroristak irentsitako biktima guztienganako elkartasuna erakutsi hala izango dugu. Euren hitzak paregabe dira, lazgarriak, entzuteko modukoak. Izan ere, benetan gertatutakorantz hurbiltzen gaituzte hitzok. Hemendik bertatik ere eskertu nahi diegu honelako berbaldia egitera etorriko direnei, hain da mingarria eurentzat baina aldi berean, hain da beharrezkoa besteontzat euren tokian jarri gaitezen eta indarkeriaren hutsalakeriaz, beste behin ere, konturatu ahal izateko.

Beste aldetik, biktimen errealitate hori gure oroimenaren zati izan dadin nahi dugu. Azken finean, gure iraganaren eta oraingoaren errealitate dira, baita gure etorkizunarena ere, oinarri etiko garbietan eraikiko badugu.

Honako gaiak eta itaunak jorratuko ditugu:

- Nola entzun biktimen ahotsak? Zer-nolako jarrera hartu euren bizipen, oinaze, aldarrikapen eta eskaeren aurrean? Zein gauza izan liteke euren atsekabearen aringarri? Zerk laguntzen die eta zerk areagotzen die mina?
- Biktimen lekukotasunak lazgarriak dira oso. Heldu egiten zaizkigu eta geuk hurbildu eta elkartasuna erakusten diegu. Baina gizarte garen heinean, zein da gure betebeharra? Zein, gure konpromisoa?

Biktimen hitzak entzuteko eta hausnarketa egiteko, datorren asteartean, hilak 25, Donostiako Miramar Jauregian, *"Biktimen ahotsak: denontzako ikasgai"* Jardunaldia burutuko dugu.

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

Bertan honakook hartuko dute parte:

- Angel Altuna. 1980an Araban, ETAk eraildako Basilio Altunaren semea
- Eduardo Izquierdo. 1980an ETaren atentatu baten biktima
- Coral Rodriguez, José Humberto Fouz-en iloba, Iparraldean 1973an desagertua
- Florencio Domínguez, Vasco Presseko kazetaria.

Mahai.ingurua arratsaldeko 8etan hasiko da eta honatx eginkizuna: hizlari bakoitzaren berbaldia. Ondoren, Mahai buruak galdera batzuk egingo dizkie.

Herritar-hiritar guztiak gonbidatu nahi ditugu hitz eta hausnarketa horiek entzutera. Hartara, indarkeriaren biktimganako elkartasun eta omenaldia egiten saiatuko gara. Eskerrik asko.

Desde que Gesto por la Paz comenzó su andadura, una de sus prioridades ha sido la de fomentar el reconocimiento y la solidaridad para con las víctimas de la violencia, a través de una labor de acompañamiento y escucha activa personal y un compromiso de sensibilización social y de reconocimiento. Todo ello, además de ser un modo de transmitir nuestra solidaridad y la de la sociedad, se convierte en motor de una oposición radical a la violencia y a su injusticia.

Durante los últimos años, Gesto por la Paz viene organizando unas Jornadas de Solidaridad con las Víctimas que pretenden ser un espacio donde las víctimas puedan expresar sus opiniones y sentimientos y donde el resto de la sociedad podemos acercarnos a su realidad: conocerla y reconocerla, transmitirles nuestra cercanía y reflexionar sobre cómo responder a sus necesidades presentes y futuras. En este sentido, hemos organizado para el día 25 de octubre en el Palacio Miramar de San Sebastián una charla con el título de **“LAS VOCES DE LAS VÍCTIMAS. UNA ENSEÑANZA PARA TODOS”**.

Nos hemos planteado un doble objetivo. En primer lugar, aproximar a la ciudadanía el testimonio de algunas víctimas, y ofrecerles la posibilidad de compartir su propia experiencia, con el fin de acercarnos a su vivencia, reconocer la injusticia que han padecido y solidarizarnos con ellas y con todas las víctimas de la violencia terrorista. Fruto de las experiencias anteriores, podemos decir que los testimonios que nos ofrecen son únicos, vitales e impactantes. Somos conscientes de la dificultad de expresar algo tan íntimo en público. Resulta doloroso y precisa de mucho coraje, por eso agradecemos enormemente su participación. Creemos que es necesario que estos testimonios salgan a la luz y sean conocidos porque resultan imprescindibles para conocer la verdad de lo ocurrido y sus dramáticas consecuencias. Este tipo de actos nos permiten acercarnos a ellas, nos ayudan a ponernos en su lugar, a ser conscientes de la sinrazón de la violencia y a transformar nuestras actitudes.

El segundo objetivo es contribuir a mantener y a incorporar la realidad de las víctimas a nuestra memoria. Esta realidad que forma parte de nuestro pasado y nuestro presente, también debe serlo de nuestro futuro, si queremos construirlo sobre bases éticas y morales. Por esta razón, reivindicamos asumir su memoria para

Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>

**COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA**

que forme parte de nuestra historia y de nuestro presente y con ella, poder construir nuestro futuro.

Para ello vamos a abordar cuestiones tales como:

¿Cómo escuchar las voces de las víctimas?, ¿cómo reaccionar antes sus testimonios, sus dolores, sus denuncias, sus exigencias?, ¿qué podría ayudarles a sobrellevar el sufrimiento que padecen?, ¿qué les ayuda o qué les añade mayor sufrimiento?

Sus testimonios resultan impactantes. Decimos que irrumpen en nuestro espacio y en nuestro tiempo, pero además de que cada uno individualmente se acerque y se solidarice ¿qué obligaciones tenemos como sociedad?

Para escuchar los testimonios de las víctimas y reflexionar sobre estas cuestiones el próximo martes, 25 de octubre, en el Palacio Miramar de San Sebastian vamos a celebrar la charla **"LAS VOCES DE LAS VÍCTIMAS. UNA ENSEÑANZA PARA TODOS"** en la que intervendrán:

- Angel Altuna (hijo de Basilio Altuna asesinado por ETA el 6 de septiembre de 1980 en Erentxun, Alava)
- Eduardo Izquierdo (víctima de un atentado de ETA el 22 de julio de 1980)
- Coral Rodríguez (sobrina de José Humberto Fouz, desaparecido en Iparralde junto a dos amigos el 24 de marzo de 1973)
- Florencio Domínguez (periodista de Vasco Press y habitual colaborador de El Correo)

La charla comenzará a las ocho de la tarde y su desarrollo será el siguiente: Una exposición de unos 15 ó 20 minutos de cada uno de los invitados y, posteriormente, la persona que modere les realizará algunas preguntas sobre el tema.

Invitamos a toda la ciudadanía a que acuda a escuchar estos testimonios y reflexiones, con ello realizaremos un ejercicio de solidaridad y homenaje a las víctimas de la violencia.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA
22 de octubre de 2005

